

# ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

### Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

7.601

#### 74/2006 FORU DEKRETUA, azaroaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudia onartu da.

Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauak Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko araudia onartu zuen. Xedapen orokor horren ezaugarrietako bat izan zen ordura arte zerga horren garapen araudian agertzen ziren xedapenak sartu zirela Foru Arauen mailan.

Memento honetan beharrezkoa da maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua garatzea, arautegiari dagokionez. Eta, hain zuzen ere, arautegiaren garapen hori da Foru Dekretu honen xedea.

Foru Dekretua lau titulutan banatzen da. I. tituluan zergaren antolaketa xedapen orokorrak ezartzen dira, eta lehenengo titulu horretan jasotzen dira, baita ere, besteak beste, "mortis causa" esku-rapenatarako, dohaineko "inter vivos" eskualdatzeatarako eta bermeen arloko zerga oinarria zehazteko arau bereziak. Horrez gain, peritutasazio kontrajarriaren prozedura arautzen da ere.

II. tituluan zergaren kudeaketa azaltzen da. II. titulua osatzen duten kapituluetatik lehenengoak arau orokorrak arautzen ditu. Bigarren kapitulua bost atalek osatzen dute, eta horietan honako gai hauek jorratzen dira: aurkezpen epea, luzapena eta etetea, dokumentuak aurkezteko lekua, eskumen gaiak, izapidetzea, likidazioa eta zergaren ordainketa.

III. tituluak prozedura bereziak arautzen ditu, hala nola, zerga egitateen presuntzioa, jaraunspen ondareari ondasunak gehitzea, zerga ordaindu eta gero azaltzen den kausatzailearen zorren kenkaria eta dohaintza hartzaileak ordaindutako dohaintza emaitzaen zorren kenkaria.

Azkenik, IV. tituluan ixte erregistrala arautzen da.

Aztertu dira gaiaren inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena, bai eta Kontsultarako Batzordeak egin duena ere.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

XEDATU DUT:

### I. TITULUA. ZERGAREN ANTOLAMENDUA I. KAPITULUA. IZAERA ETA XEDEA

1. artikulua.- Izaera eta xedea.

1. Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga zuzena eta subjektiboa da, eta zerga horren Foru Arauan eta Foru Dekretu honetan ezarritakoari jarraiki, pertsona fisikoek irabazi asmoarekin eskuratu dituzten ondasun gehikuntzak zergapetzen ditu.

2. Pertsona juridikoek zerga honetan aipatuta dauden ondare gehikuntzak lortzea ez da zerga honen menpean geldituko, eta sozietateen gaineko zergaren menpean jarriko da.

2. artikulua.- Zer da ondare gehikuntza.

Ondasun eta eskubideak eranstea da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpeko ondare gehikuntza, baldin eta haiek pertsona fisiko baten ondareari eransten bazaizkio eta eranste horren kausa Zergari buruzko Foru Arauan zerga betebeharraren sortzeko zehaztaile gisa itxuratuta dagoen zerga egitatearen bat egitea bada.

3. artikulua.- Zerga honen menpean ez kasuak.

Honako hauek ez daude Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean:

a) Baimendutako jokoetan lortutako sariak.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpeko kalte ordainak eta gainerako sariak.

c) Ongintza-, irakas-, kultura-, edo kirol-helburuak edo gizarte ekintzak xede dituzten erakunde publikoek edo pribatuak ematen dituzten diru laguntzak, bekak, sariak, primak, haborokinak eta sorsopenenak.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

### Decretos Forales del Consejo de Diputados

7.601

#### DECRETO FORAL 74/2006, del Consejo de Diputados de 29 de noviembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

La Norma Foral 11/2005, de 16 de mayo, aprobó la regulación del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Una de las características de esta disposición general fue la incorporación, a nivel de Norma Foral, de disposiciones que hasta entonces figuraban en el reglamento de desarrollo de dicho tributo.

En estos momentos se hace preciso proceder al desarrollo reglamentario de la Norma Foral 11/2005, de 16 de mayo. Este desarrollo reglamentario constituye el objeto del presente Decreto Foral.

El Decreto Foral se estructura en cuatro Títulos. En el Título I se establecen las disposiciones generales de ordenación del Impuesto, incluyendo dentro del mismo, entre otros aspectos, las normas especiales de determinación de la base imponible para adquisiciones "mortis causa", para transmisiones lucrativas "inter vivos", y en materia de seguros. Además, también se regula el procedimiento de la tasación pericial contradictoria.

El Título II se dedica a la gestión del Impuesto. El primero de los Capítulos en los que está dividido regula las normas de carácter general, mientras que el segundo, estructurado a su vez en cinco Secciones, desarrolla los plazos de presentación, prórroga y suspensión, el lugar de presentación de los documentos, las cuestiones de competencia, la tramitación, la liquidación y el pago del Impuesto.

El Título III regula los procedimientos especiales, desarrollando el procedimiento sobre presunciones de hechos imposables, el de adición de bienes a la masa hereditaria, el de deducción de deudas del causante puestas de manifiesto con posterioridad al ingreso del Impuesto y el de deducción de deudas del donante satisfechas por el donatario.

Finalmente, el Título IV se dedica a regular el cierre registral.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

### TÍTULO I. ORDENACIÓN DEL IMPUESTO CAPÍTULO I. NATURALEZA Y OBJETO

Artículo 1.- Naturaleza y objeto.

1. El Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones es un tributo de naturaleza directa y subjetiva que grava los incrementos patrimoniales obtenidos a título lucrativo por personas físicas en los términos establecidos en la Norma Foral del citado Impuesto y en el presente Decreto Foral.

2. La obtención por personas jurídicas de los incrementos de patrimonio a que se refiere este Impuesto no quedará sujeta al mismo y se someterá al Impuesto sobre Sociedades.

Artículo 2.- Concepto de incremento de patrimonio.

Es incremento de patrimonio sujeto al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones toda incorporación de bienes y derechos que se produzca en el patrimonio de una persona física cuando tenga su causa en la realización de alguno de los hechos imposables configurados en la Norma Foral del Impuesto como determinantes del nacimiento de la obligación tributaria.

Artículo 3.- Supuestos de no sujeción.

No están sujetos al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones:

a) Los premios obtenidos en juegos autorizados.

b) Los demás premios y las indemnizaciones sujetas al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

c) Las subvenciones, becas, premios, primas, gratificaciones y auxilios que se concedan por Entidades Públicas o privadas con fines benéficos, docentes, culturales, deportivos o de acción social.

d) Korporazioek, elkarteek, fundazioek, sozietateek, enpresek eta gainerako erakundeek beren langileei, enplegatuei eta soldatapekoiei emandako kopuruak, prestazioak edo onurak, baldin eta lan kontratutik zuzenean edo zeharka badauz, eta haiek itundutako aseguru baten bitartez ordaintzen diren arren.

e) Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen eta Pentsio Plan eta Fondoan onuradunek prestazio gisa jasotzen dituzten kopuruak. Horretarako, xedatuta egon beharko du prestazio horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergakoa den eta hartzaileari dagokion zerga oinarrian sartzea.

f) Hartzekodun batek aurreko zorra ordainduko dela bermatzeko egindako bizitza aseguruaren kontratu baten onuradun gisa jasotako kopuruak, baldin eta inguruabar horiek behar bezala frogatuta badaude.

4. artikulua.- Zerga egitateak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekiko bateraezintasuna.

Zerga egitate bakar bati ezin izango zaio eskatu eskubide bakar baten ordainketa baino gehiago, baina dokumentu edo kontratu bakar batean zergaren menpeko kontzeptu bat baino gehiago jasotzen badira, aipatutako eskubidea eskatuko zaio horietako bakoitzari, bestelakoa zehazten den kasuetan izan ezik.

Ondare gehikuntza bera ezingo dute inolaz ere batera zergape-tu Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak.

## II. KAPITULUA. ZERGA EGITATEA

### 5. artikulua.- Zerga egitatea

#### 1. Ondokoak zerga egitateak izango dira:

a) Ondasunak eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo oinordetzako beste tituluren baten bidez eskuratzea.

b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein dohaineko eta "inter vivos" negozio juridikoz eskuratzea.

c) Bizitza aseguruen kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, baldin eta kontratugilea onuraduna ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 15.5.a) artikuluan berriaz araututako kasuetan izan ezik.

2. Aurreko idatz zatiko a) letran aipatuta dauden eskuraketak kausatzailea hiltzen den egunean hartuko dira gauzatutzat. Hori dela eta, Zerga eskatzeko nahikoa izango da eskualdaketaren egitate sortzailea frogatuta egotea, agiriak, inbentarioak edo banaketak egin edo likidatzeko aurkeztu ez diren arren, edo bestela, autolikidazioa aurkeztuta egotea.

### 6. artikulua.- Oinordekotza tituluak.

Jaraunspenez eta legatuaz gain, honako hauek dira, besteak beste, oinordekotza tituluak zerga honen ondoreetarako:

a) "Mortis causa" dohaintza.

b) Oinordetzako kontratuak edo itunak.

c) Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta erakundeek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzkitzeko balio duten egintzak, haien modalitatea edo izena edozein izanik, baldin eta Foru Dekretu honen 5. artikuluaen 1. idatz zatiko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren berriaz xedatuta ez badago kopuru horiek jasotzeagatik zerga ordaindu beharra.

d) Testamentu betearazleei beren lana egiteagatik testamentugileek esleitutako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzkitzeko balio dutenak, baldin eta haiek jaraunspen ondasuntzaren balio egiaztatuauren % 10 gaintzen ez badute.

e) Ezkontza hitzarmenetan oinordea izendatzea.

f) Komisarioak testamentua egiteko ahala erabiltzetik datozen egintzak; berdin da zein itxura hartzen duten.

### 7. artikulua.- Dohaineko eta "inter vivos" negozio juridikoak.

Dohaintzaz gain, honako hauek hartuko dira, besteak beste, zerga honen ondoreetarako dohaineko eta "inter vivos" negozio juridikotzat:

a) Zorra osorik edo zati batean barkatzea, eskuzabaltasunez.

b) Pertsona zehatz baten alde, eskubideei uko egitea.

c) Beste baten zorraren kontraprestaziorik gabeko kitapena berregantzea, Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.

d) Las cantidades, prestaciones o utilidades entregadas por corporaciones, asociaciones, fundaciones, sociedades, empresas y demás entidades a sus trabajadores, empleados y asalariados, cuando deriven directa o indirectamente de un contrato de trabajo, aunque se satisfagan a través de un seguro concertado por aquéllas.

e) Las cantidades que en concepto de prestaciones se perciban por los beneficiarios de Entidades de Previsión Social Voluntaria y de los Planes y Fondos de Pensiones, siempre que esté dispuesto que estas prestaciones se integren en la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al perceptor.

f) Las cantidades percibidas por un acreedor, en cuanto beneficiario de un contrato de seguro sobre la vida celebrado con el objeto de garantizar el pago de una deuda anterior, siempre que resulten debidamente probadas estas circunstancias.

Artículo 4.- Concurrencia de hechos imponibles e incompatibilidad con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

A un solo hecho imponible no puede exigírsele más que el pago de un solo derecho, pero cuando un mismo documento o contrato comprenda varios conceptos sujetos al Impuesto separadamente, se exigirá el derecho señalado a cada uno de ellos, salvo en los casos en que se determine otra cosa.

En ningún caso un mismo incremento patrimonial podrá quedar gravado por el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

## CAPÍTULO II. EL HECHO IMPONIBLE

### Artículo 5.- Hecho imponible.

#### 1. Constituye el hecho imponible:

a) La adquisición de bienes y derechos por herencia, legado o cualquier otro título sucesorio.

b) La adquisición de bienes y derechos por donación o por cualquier otro negocio jurídico a título gratuito e "inter vivos".

c) La percepción de cantidades por los beneficiarios de contratos de seguro sobre la vida, cuando el contratante sea persona distinta del beneficiario, salvo los supuestos expresamente regulados en el artículo 15.5.a) de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

2. Las adquisiciones a que se refiere la letra a) del apartado anterior se entenderán realizadas el día del fallecimiento del causante, por lo que para exigir el Impuesto bastará que esté probado el hecho originario de la transmisión, aunque no se hayan formalizado ni presentado a liquidación los documentos, inventarios o particiones, o en su caso, se haya presentado la autoliquidación.

### Artículo 6.- Títulos sucesorios.

Entre otros, son títulos sucesorios a los efectos de este Impuesto, además de la herencia y el legado, los siguientes:

a) La donación "mortis causa".

b) Los contratos o pactos sucesorios.

c) Los que atribuyan el derecho a la percepción de las cantidades que, cualquiera que sea su modalidad o denominación, las empresas y entidades en general entreguen a los familiares de miembros o empleados fallecidos, siempre que no esté dispuesto expresamente que estas percepciones deban tributar por la letra c) del apartado 1 del artículo 5 de este Decreto Foral o en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

d) Los que atribuyan el derecho a la percepción de las cantidades asignadas por los testadores a los albaceas por la realización de sus trabajos como tales, en cuanto excedan del 10 por 100 del valor comprobado del caudal hereditario.

e) La designación de sucesor en capitulaciones matrimoniales.

f) Los actos que resulten de la utilización del poder testatorio por el comisario, cualquiera que sea la forma que adopten.

### Artículo 7.- Negocios jurídicos gratuitos e "inter vivos".

Entre otros, tienen la consideración de negocios jurídicos gratuitos e "inter vivos" a los efectos de este Impuesto, además de la donación, los siguientes:

a) La condonación de deuda, total o parcial, realizada con ánimo de liberalidad.

b) La renuncia de derechos a favor de persona determinada.

c) La asunción liberatoria de la deuda de otro sin contraprestación, salvo en el caso previsto en el artículo 20 de la Norma Foral del Impuesto.

d) Beste aldearen alde tartekaritza edo judizioan amore eman edo atzera egitea, eskuzabal jokatzeko asmoz; eta asmo berarekin egingadako uko, atzera egite edo amore ematek datorren transakzioa.

e) Bizitza aseguruaren kontratua, aseguruak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru kontratua, kontratugilea ez den aseguruatua hilez gero, kasu batean eta bestean onuraduna kontratugilea ez bada.

#### 8. artikulua.- Istripu aseguruaren lotura kasuak.

Istripu aseguruaren onuradunak kopuruak jasotzea Foru Dekretu honen 5. artikulua 1. idatz zatiko c) letrako zerga egitatean sartuta egongo da, kopuruak jasotze horren kausa pertsona aseguruatua hiltzea bada.

artikulua.- Aldizkako prestazioak.

1. Foru Dekretu honetako 5. artikulua 1. idatz zatiko c) letran, 6. artikulua c) eta d) letretan eta 7. artikulua e) letran aipatuta dauden kopuruak jasotzea Zergari loturik egongo da, bai behin bakarrik jasotzen badira bai aldizkako, biziarteko edo aldi baterako prestazio gisa jasotzen badira.

2. Aldizkako, biziarteko edo aldi baterako prestazioak jasotzea Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluan –Zergaren sortzapenari buruzkoa– xedaturikoaren arabera arautuko da.

3. Aurreko idatz zatiko kasuetan, Administrazioak, bertako perituen irizpenaren bitartez, aktuarioarengana jo ahalko du beronek pentsioaren egungo balioa kalkulatu dezan. Horrela, zerga oinarria zehaztu ahalko du.

#### 10. artikulua.- Zerga egitatearen legezko eraginkortasunik eza.

Kontratua alde kontratugileen elkarren arteko adostasunaz ondorenerik gabe geratzen bada, ordaindutako kuotak ez dira itzuliko, eta zerga ordaindu behar duen beste egintza bat balitz bezala hartuko da.

Elkarren arteko adostasun gisa hartuko dira baita ere adiskide-tze egintzako abenikoa, demandan amore emate erabat eta demandatuaren aitortza judiziala, kontratuak eraginkortasunik ez izatearen arrazoi erabakigarrien ezagutza duela esan nahi duena.

#### 11. artikulua.- Dohaintzarik ezaren presuntzioa.

1. Zerga ondoretarako, ezkontideen, izatezko bikoteen (Eusko Legebiltzarren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteak badira), aurrekoen eta ondorengoen edo gurasotzakoen eta umeordeen arteko dohaintzak, Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikulua c) letran ezarrita dagoen salbuespenak babestuak, ez dira egintzat hartuko, dohaintza hartzailearen ondare gehikuntza eta dohaintza emailearen ondare gutxitze baliokidea aldi berean gertatu direla akreditatu ezin bada.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den presuntzioak kontrako frogan onartuko du edozein kasutan.

### III. KAPITULUA. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK

#### 12. artikulua.- Zergadunak.

1. Honako hauek zergadunak dira, eta Zerga ordaindu beharko dute:

a) "Mortis causa" eskuraketetan, kausaduna.

b) Dohaintzetan eta gainerako "inter vivos" dohaineko eskualdaketetan, dohaintza hartzailea edo eskuratzaila. Horrelakotzat hartuko da bizitza aseguruaren onuraduna, aseguruak bizirik iraunez gero; edo banakako aseguruaren onuraduna, kontratugilea ez den pertsona aseguruatua hilez gero.

c) Aseguruaren heriotza kasurako bizitza aseguruen kasuetan eta Foru Arau honen 8. artikulukoetan, onuraduna.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatu ahalko da, aldeek ezarritako hipzaketak edo testamentugileak agindutako xedapenak edozein direlarik ere.

3. Legatua ematea Zergatik aske izateko edo Zerga jaraunspenaren pentzutan ordaintzeko agintzen duen testamentu xedapenak ez dio zerga ordaindu behar duen pertsonari inolako aldaketarik ekarriko.

### IV. KAPITULUA. ZERGA OINARRIA

#### 1. ATALA. "MORTIS CAUSA" ESKURAKETEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

#### 13. artikulua.- Arau orokorra.

Heriotzaren ondoriozko eskualdatzeetan, kausadun bakoitzaren jaraunspen ondasuntzako banakako partaidetzaren balio garbia izan-

d) El desistimiento o el allanamiento en juicio o arbitraje en favor de la otra parte, realizados con ánimo de liberalidad, así como la transacción de la que resulte una renuncia, un desistimiento o un allanamiento realizados con el mismo ánimo.

e) El contrato de seguro sobre la vida, para caso de supervivencia del asegurado y el contrato individual de seguro para caso de fallecimiento del asegurado que sea persona distinta del contratante, cuando en uno y otro caso el beneficiario sea persona distinta del contratante.

#### Artículo 8.- Supuesto de sujeción del seguro de accidentes.

La percepción de cantidades por el beneficiario de un seguro de accidentes estará incluida en el hecho imponible de la letra c) del apartado 1 del artículo 5 de este Decreto Foral cuando tenga su causa en el fallecimiento de la persona asegurada.

#### Artículo 9.- Prestaciones periódicas.

1. La percepción de las cantidades a que se refieren la letra c) del apartado 1 del artículo 5, las letras c) y d) del artículo 6, y la letra e) del artículo 7 de este Decreto Foral, estará sujeta al Impuesto, tanto si se reciben de una sola vez como si se reciben en forma de prestaciones periódicas, vitalicias o temporales.

2. La percepción de prestaciones periódicas, vitalicias o temporales se regirá por lo dispuesto en el artículo 26 de la Norma Foral del Impuesto sobre el devengo del mismo.

3. En los casos del apartado anterior, la Administración podrá acudir para determinar la base imponible al cálculo actuarial del valor actual de la pensión a través del dictamen de sus peritos.

#### Artículo 10.- Ineficacia jurídica del hecho imponible.

Cuando el contrato quedare sin efecto por mutuo acuerdo de las partes contratantes, no procederá devolución de las cuotas satisfechas y se considerará éste como un nuevo acto sujeto a tributación.

Igual consideración que el mutuo acuerdo tendrán la avenencia en acto de conciliación, el allanamiento total a la demanda y la confesión judicial del demandado, que implique reconocimiento de los hechos determinantes de la ineficacia del contrato.

#### Artículo 11.- Presunción de inexistencia de donación.

1. A efectos tributarios, las donaciones entre cónyuges, parejas de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes, descendientes, adoptantes y adoptados, amparadas por la exención prevista en la letra c) del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto, se tendrán por no hechas si no puede acreditarse que el incremento de patrimonio del donatario es simultáneo a una disminución patrimonial equivalente del donante.

2. La presunción a que se refiere el apartado anterior admitirá, en todo caso, prueba en contrario.

### CAPÍTULO III. SUJETOS PASIVOS Y RESPONSABLES

#### Artículo 12.- Contribuyentes.

1. Estarán obligados al pago del Impuesto, a título de contribuyentes:

a) En las adquisiciones "mortis causa", los causahabientes.

b) En las donaciones y demás transmisiones lucrativas "inter vivos", el donatario o el favorecido por ellas, considerándose como tal al beneficiario del seguro de vida para el caso de supervivencia del asegurado o al beneficiario del seguro individual, en el caso de fallecimiento del asegurado que sea persona distinta del contratante.

c) En los casos de seguro sobre la vida para caso de muerte del asegurado y en los del artículo 8 de este Decreto Foral, el beneficiario.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será aplicable cualquiera que sean las estipulaciones establecidas por las partes o las disposiciones ordenadas por el testador.

3. La disposición testamentaria por la que se ordene que la entrega de legados sea libre del Impuesto o que el pago de éste sea con cargo a la herencia, no producirá variación alguna en cuanto a la persona obligada a satisfacerlo.

### CAPÍTULO IV. BASE IMPONIBLE

#### SECCIÓN 1ª. NORMAS ESPECIALES PARA ADQUISICIONES "MORTIS CAUSA"

#### Artículo 13.- Principio general.

En las transmisiones por causa de muerte, constituye la base imponible del Impuesto el valor neto de la participación individual de ca-

go da Zergaren zerga oinarria. Balio garbi hori eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioari kendu ahal diren karga, zor edo gastuak kentzetik ateratzen dena izango da.

14. artikulua.- Banakako partaidetzaren balio garbia zehaztea.

1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetzaren balio garbia finkatzeko, honako hauek kenduko dira ondasun edo eskubideen balioetik:

- a) Haien gaineko kargena, baldin eta karga horiek kendu ahal badira.
- b) Kendu ahal izateko eskatutako baldintzak betetzen dituzten zorrera.
- c) Kendu ahal diren gastuen zenbatekoa.
- d) Eskuratzean zerga onuraren bat duten ondasun edo eskubideena, onurarentzat ezartzen den proportzioan.

2. Testamentugileak kargak ukitutako ondasunak edo eskuratzean zerga onura duten ondasunak pertsona zehatz bati eratziki badizkio edo, testamentugileak xedatuta, zorra ordaintzea kausadunetarikoa baten kontura gelditzen bada, kenkariak bertan sartuta dagoen pertsona edo kausaduna ukituko du.

15. artikulua.- Hil aurretiko urtean kausatzailearenak izateagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan, uste izango da jaraunspen ondasuntzaren zati direla hil baino urtebete lehenago oinordetzaren kausatzailearenak izan diren mota orotako ondasunak, baldin eta sinesgarriro frogatzen ez bada ondasun horiek hark eskualdatu zituela eta ondasun horiek jaraunsele, legatu hartzailea, hirugarren mailaren barruko ahaidea, izatezko bikotea (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteak badira) edo beraien ezkontidea edo kausatzailearena ez den pertsona baten eskutan daudela. Presuntzio hori indargabeturik geldituko da behar bezala frogatzen bada ondasuntzan sartuta ageri direla, balio berarekin, dirua edo desagertutako ondasunen lekuan subrogatutako beste ondasun batzuk.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, ondasunak kausatzailearenak izan zirela uste izango da, baldin eta haren izenean erregistratuta ageri baziren gordailuetan, kontu korronteetan edo aurrezki kontuetan, bermedun maileguetan edo antzeko beste kontratu batzuetan edo zerga banaketetan, katastroetan, Zerga Erregistroetan, Jabetzaren Erregistroetan edo publikoak diren beste erregistro batzuetan.

Subrogatutako ondasunak edo dirua dagoela frogatzen ez bada ere, interesdunek horiek benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. Presuntzio honen babesean egindako batuketak kausadun guztiak ukituko ditu jaraunseleak diren proportzio berean, baldin eta sinesgarriro akreditatzen ez bada ondasunak goragoko 1. idatz zatian adierazitako pertsonaren bati eskualdatu zaizkiola. Bestela, pertsona hori bakarrik ukituko du, eta zerga ondoretarako jaraunseleasuna edo legatu hartzailetasuna bereganatuko du, ordurako bereganaturik ez badu behintzat.

16. artikulua.- Hil aurretiko hiru urteetan kausatzaileak gozamerako eskuratzeagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Uste izango da jaraunspen ondasuntzaren zati direla ondasun eta eskubideak, baldin eta kausatzaileak hil aurretiko hiru urteetan gozamerako kostu bidez eskuratu baditu eta jaraunsele, legatu hartzaile, hirugarren mailaren barruko ahaide, izatezko bikote (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteak badira) edo beraien ezkontide edo kausatzailearen ezkontide batek jabetza soilean eskuratu baditu.

Presuntzio hori indargabeturik geldituko da behar bezala frogatzen bada jabetza soilaren eskuratzaileak eskualdatzaileari dirua ordaindu edo balio bereko ondasunak edo eskubideak eman zizkiola, haiek eskuratzeak nahiko direnak.

Subrogatutako ondasunak edo dirua dagoela frogatzen ez bada ere, interesdunek horiek kostu bidez benetan eskualdatu direla frogatzeko eskubidea izango dute.

2. Presuntzio honen babesean egindako batuketak jabetza soilaren eskuratzaileari bakarrik egingo dio kalte; ondasun edo eskubi-

da causahabiente en el caudal hereditario, entendiéndose como tal el valor real de los bienes y derechos adquiridos minorado por las cargas o gravámenes, deudas y gastos que tuvieren la condición de deducibles.

Artículo 14.- Determinación del valor neto de la participación individual.

1. A efectos de fijar el valor neto de la participación individual de cada causahabiente, se deducirá del valor de los bienes o derechos:

- a) El de las cargas o gravámenes que pesaren sobre los mismos y que sean deducibles.
- b) El de las deudas que reúnan las condiciones exigidas para su deducción.
- c) El importe de los gastos deducibles.
- d) El de aquellos bienes o derechos que disfruten de algún beneficio fiscal en su adquisición, en la proporción que para el beneficio se establezca.

2. Cuando los bienes afectados por la carga o los que disfruten del beneficio fiscal en su adquisición hayan sido atribuidos por el testador en favor de persona determinada, o cuando, por disposición del mismo, el pago de la deuda quede a cargo de uno de los causahabientes, la deducción afectará sólo a la persona o causahabientes de que se trate.

Artículo 15.- Bienes adicionales por haber pertenecido al causante en el año anterior al fallecimiento.

1. En las adquisiciones por causa de muerte se presumirá que forman parte del caudal hereditario los bienes y derechos de todas clases que hubiesen pertenecido al causante de la sucesión hasta un año antes del fallecimiento, salvo prueba fehaciente de que tales bienes o derechos fueron transmitidos por aquél y de que se hallan en poder de persona distinta de un heredero, legatario, pariente dentro del tercer grado, pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, o cónyuge de cualquiera de ellos o del causante, ya que si se hubiera transmitido a éstos se integrará en su base imponible. Esta presunción quedará desvirtuada mediante la justificación suficiente de que, en el caudal, figuran incluidos, con valor equivalente, el metálico, bienes o derechos subrogados en el lugar de los desaparecidos.

A los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se presumirá que los bienes pertenecieron al causante por la circunstancia de que los mismos figurasen a su nombre en depósitos, cuentas corrientes o de ahorro, préstamos con garantía o en otros contratos similares o bien inscritos a su nombre en los Catastros, Registros Fiscales, Registros de la Propiedad u otros de carácter público.

La no justificación de la existencia de dinero o de bienes subrogados no obstará al derecho de los interesados para probar la realidad de la transmisión.

2. La adición realizada al amparo de esta presunción afectará a todos los causahabientes en la misma proporción en que fuesen herederos, salvo que fehacientemente se acredite la transmisión a alguna de las personas indicadas en el apartado 1 anterior, en cuyo caso afectará sólo a ésta que asumirá a efectos fiscales, si ya no la tuviese, la condición de heredero o legatario.

Artículo 16.- Bienes adicionales por haberlos adquirido en usufructo el causante en los tres años anteriores al fallecimiento.

1. Se presumirá que forman parte del caudal hereditario los bienes y derechos que, durante los tres años anteriores al fallecimiento, hubiesen sido adquiridos a título oneroso en usufructo por el causante y en nuda propiedad por un heredero, legatario, pariente dentro del tercer grado, pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, o cónyuge de cualquiera de ellos o del causante.

Esta presunción quedará desvirtuada mediante la justificación suficiente de que el adquirente de la nuda propiedad satisfizo al transmitente el dinero o le entregó bienes o derechos de valor equivalente, suficientes para su adquisición.

La no justificación de la existencia de dinero o de bienes subrogados no obstará al derecho de los interesados para probar la realidad de la transmisión onerosa.

2. La adición realizada al amparo de esta presunción perjudicará exclusivamente al adquirente de la nuda propiedad al que se le li-

dearen jabari osoa "mortis causa" eskuratzeagatik likidatuko zaio. Likidazio horren praktikarengatik baztertu egingo da jabari osoa sendotzeagatik dagokiona.

17. artikulua.- Kausatzaileak bere jabetza soila hil aurretiko bost urteetan eskualdatzeagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Ondasun eta eskubideak jaraunspen ondasuntzaren zati direla ulertuko da, baldin eta kausatzaileak hil aurretiko lau urteetan eskualdatu baditu eta beraien edo eskuratzailearen beste ondasun edo eskubide batzuen edo beste edozein biziarteko eskubideren gozamina beretzat gorde badu, horrelako eragiketarako legez egiten dituen erakunde batekin egindako biziarteko errentaren aseguruak direnean izan ezik.

Presuntzio hori indargabeturik geratuko da behar bezala frogatzen bada jaraunspen ondarean badagoela jabetza soila eskualdatzeagatik jasotako dirurik edo balio bereko bestelako ondasunik.

Subrogatutako ondasunak edo dirua dagoela frogatzen ez bada ere, interesdunek horiek benetan eskualdatu direla frogatzeko esku-bidea izango dute.

2. Presuntzio honen babesean egindako batuketak jabetza soilaren eskuratzaileari bakarrik egingo dio kalte; eskuratzaile hori legatu hartzailetzat hartuko da jaraunspen ez bada, eta berari ondasun edo eskubidearen jabari osoa "mortis causa" eskuratzeagatik likidatuko zaio likidatzeko. Likidazio horren praktikarengatik baztertu egingo da jabari osoa sendotzeagatik dagokiona.

18. artikulua.- Baloreak edo efektuak endosatzeagatik gehitu ahal diren ondasunak.

1. Gordailatutako baloreak eta efektuak jaraunspen ondasuntzaren zati direla ulertuko da, baldin eta beraien gordekinak endosatu badira eta endosatzailea hil baino lehen kendu ez badira edo gordailuzainaren liburuetan endosuaren berririk eman ez bada; eta endosatutako balio izendunak, transferentzia erakunde jaulkitzailearen liburuetan kausatzailea hil aurretik agerrarazi ez bada.

Presuntzio hori indargabeturik geldituko da baldin eta behar bezala frogatu bada eskualdatutako ondasun eta efektuen prezioa edo balioaren baliokidetasuna saltzailearen edo lagatzailearen ondarrera sartu dela eta haren jaraunspenaren inbentarioan ageri dela (berau kontutan hartu behar da Zerga likidatzeko) edo baloreak edo efektuak kentzea edo endosuaren berririk ematea ezin izan dela kausatzailea hil aurretik egiaztatu beronekin eta endosu hartzailearekin zerikusirik ez duten arazoengatik. Hala ere, ondasunak batu egin daitezke aurreko 15., 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren babesean.

2. Artikulu honen arabera egindako batuketak baloreen endosu hartzailea bakarrik ukituko du; berau legatu hartzailetzat hartuko da jaraunspen ez bada.

19. artikulua.- Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga batuketatik eta kenkaritik bazterzea.

Ezin izango dira Foru Dekretu honen 15-18 artikuluetan aipatuta dauden batuketak kontutan hartu, baldin eta ondasunak kostu bidez eskualdatzeagatik Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz honako kopurua ordaindu bada: presuntzioak ukitutako legatu hartzaileari edo jaraunspenari Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergan dagokion benetako batezbesteko tasa eskuratzeko denboran egiaztatutako balioari aplikatetik ateratzen den kopurua baino kopuru altuagoa. Era berean, batuketa horiek ez dira kontutan hartuko likidazioan balio hori sartu bada. Benetako batez besteko karga tasa Zergari buruzko Foru Arauaren 25. artikuluan ezarritako eran kalkulatu da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz sartutako kopurua txikiagoa bada, ondasunak batu egin ahalko dira, baina subjektu pasiboak eskubidea izango du Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz egindako likidaziotik haren zioz ordaindutakoa ken dakion.

20. artikulua.- Zatitu ezin diren ondasunetan kausatzaileari eratik dakiokkeen proportzioa.

Jaraunspen banatu gabeetan, ondasun erkidegoetan eta nortasun juridikorik ez duten eta ekonomi batasuna edo banatutako ondarea osatzen duten gainerako erakundeetan sartuta dauden ondasunetan kausatzaileari eratik ahal zaion partaidetza jaraunspen ondasuntzari gehituko zaio aplikatu ahal diren arauetatik eta interesdunen arteko itunetatik datorren proportzioan eta, Administrazioak itun horien berri frogaturik ez badauka, interesdunen kopuruaren proportzioan.

quidará por la adquisición "mortis causa" del pleno dominio del bien o derecho de que se trate. La práctica de esta liquidación excluirá la que hubiese correspondido por la consolidación del pleno dominio.

Artículo 17.- Bienes adicionales por haber transmitido el causante su nuda propiedad en los cuatro años anteriores al fallecimiento.

1. Se presumirá que forman parte del caudal hereditario los bienes y derechos que hubieran sido transmitidos por el causante durante los cuatro años anteriores a su fallecimiento, reservándose el usufructo de los mismos o de otros del adquirente, o cualquier otro derecho vitalicio, salvo cuando se trate de seguros de renta vitalicia contratados con entidades dedicadas legalmente a este género de operaciones.

Esta presunción quedará desvirtuada mediante la justificación suficiente de que en el caudal hereditario figura dinero u otros bienes recibidos en contraprestación de la transmisión de la nuda propiedad por valor equivalente.

La no justificación de la existencia de dinero o de bienes subrogados no obstará al derecho de los interesados para probar la realidad de la transmisión.

2. La adición realizada al amparo de esta presunción perjudicará exclusivamente al adquirente de la nuda propiedad, que será considerado como legatario si fuese persona distinta de un heredero y al que se liquidará por la adquisición "mortis causa" del pleno dominio del bien o derecho de que se trate. La práctica de esta liquidación excluirá la que hubiese correspondido por la consolidación del pleno dominio.

Artículo 18.- Bienes adicionales en supuestos de endoso de valores o efectos.

1. Se presumirá que forman parte del caudal hereditario los valores y efectos depositados y cuyos resguardos se hubieren endosado, si con anterioridad al fallecimiento del endosante no se hubiesen retirado aquéllos o tomado razón del endoso en los libros del depositario, y los valores nominativos que hubieren sido igualmente objeto de endoso, si la transferencia no se hubiere hecho constar en los libros de la entidad emisora con anterioridad también al fallecimiento del causante.

No tendrá lugar esta presunción cuando conste de un modo suficiente que el precio o equivalencia del valor de los bienes o efectos transmitidos se ha incorporado al patrimonio del vendedor o cedente y figura en el inventario de su herencia, que ha de ser tenido en cuenta para la liquidación del Impuesto, o si se justifica suficientemente que la retirada de valores o efectos o la toma de razón del endoso no ha podido verificarse con anterioridad al fallecimiento del causante por causas independientes de la voluntad de éste y del endosario, sin perjuicio de que la adición pueda tener lugar al amparo de lo dispuesto en los artículos 15, 16 y 17 anteriores.

2. La adición realizada en base a este artículo afectará exclusivamente al endosario de los valores, que será considerado como legatario si no tuviese la condición de heredero.

Artículo 19.- Exclusión de la adición y deducción del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

No habrá lugar a las adiciones a que se refieren los artículos 15 a 18 de este Decreto Foral, cuando por la transmisión onerosa de los bienes se hubiese satisfecho por el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados una cantidad superior a la que resulte de aplicar a su valor comprobado al tiempo de la adquisición del tipo medio efectivo que correspondería en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones al heredero o legatario afectado por la presunción, si en la liquidación hubiese incluido dicho valor. El tipo medio efectivo de gravamen se calculará en la forma establecida en el artículo 25 de la Norma Foral del Impuesto.

Si la cantidad ingresada por el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados fuese inferior, habrá lugar a la adición, pero el sujeto pasivo tendrá derecho a que se le deduzca de la liquidación practicada por el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones lo satisfecho por aquél.

Artículo 20.- Proporción atribuible al causante en bienes en situación de indivisión.

La participación atribuible al causante en bienes que estén integrados en herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, carentes de personalidad jurídica, constituyan una unidad económica o un patrimonio separado susceptibles de imposición, se adicionará el caudal hereditario en la proporción que resulta de las normas que sean aplicables o de los pactos entre los interesados y, si éstos no constasen a la Administración en forma fehaciente, en proporción al número de interesados.

## 21. artikulua.- Kargak kentzea.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan, betiereko kargak, aldi baterakoak edo luditutako ahal direnak bakarrik kendu ahalko dira, baldin eta ondasunen gainean zuzenean ezarritako agertzen badira eta haien kapitala edo balioa benetan urritzen badute, hala nola, zentsuak eta pentsioak. Ez dira multzo horren barruan sartuko eskuratzailerari obligazio pertsonala ekartzen dioten kargak ez eskualdatutakoaren balioa urriarazten ez dutenak (esate baterako, hipotekak eta bahiak). Hala ere, kontutan hartuko da bermatzen duten zorrak kendu ahal izango direla horretarako ezarritako betekizunak betez gero.

2. Aurkezten diren agirietan ez bada berariaz azaltzen pentsio, karga kengarrien iraupena, mugagabetzat joko da.

3. Zentsuko balioetat hartuko da, kargak kentzeari begira, lege-ria zibilaren arauen arabera zentsua luditutako eman behar den kapitala.

4. Hala, pentsioen balioa lortzeko, pentsioak diruaren legezko korrituan kapitalizatutako dira eta emaitzako kapitaletik hartuko da gozamenak baloratzeko ezarritako erregelaren arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterako bada. Pentsioduna hildakoa iraungitzen ez diren aldi baterako pentsioak baloratzeko, ez da eraentzailera izango gozamenak baloratzeko finkatutako muga. Horrela lortutako balioa zuzentzeko, interesdunak peritutu tasazio kontrajarria gauzatzea eskatu ahalko du.

Pentsioa iraungitakoan, ondasunen eskuratzailerak pentsioa eratu zen unean indarrean zegoen tarifaren arabera kendutako kapitalari dagokion Zerga ordaindu beharko du.

## 2. ATALA. "INTER VIVOS" DOHAINEKO ESKUALDAKETEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

## 22. artikulua.- Kargak kentzea.

1. Dohaintzan edo dohaintzarekin pareka daitekeen beste edozein inter vivos eta dohaineko negozio juridikoren bitartez eskuratu-tako ondasun edo eskubideen balio garbia zehazteko, kargak kendu ahalko dira, baldin eta Zergari buruzko Foru Arauaren 19. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

2. Kargak kentzeko orduan, Foru Dekretu honen 21. artikuluko 2., 3., eta 4. idatz zatietan bildutako arauak aplikatu ahalko dira.

## 23. artikulua.- Ezkontza sozietateak edo izatezko bikoteak ondasun komunak dohaintzan ematea.

1. Irabazpidezko ondasunak bi ezkontideek batera dohaintzan ematen dituztenean, eta mota horretako ondasunen dohaintza presuntzioa aplikatzen den kasuetan, kontuan hartuko da, Zerga likidatzeari begira, bi eskualdatze desberdin daudela. Hori dela eta, eskualdatze bakoitzaren oinarria eta karga tasa ezarriko da, dohaintzan emandako ondasunen gutzizko balioaren erdia aintzat hartuta.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikagarria izango da, halaber, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteen kasuan.

## 3. ATALA. ASEGURUEN ARLOKO ARAU BEREZIAK

24. artikulua.- Ezkontza sozietatearen edo izatezko bikotearen ondasun komunaren kontura kontratatutako aseguruak.

1. Asegurua ezkontide batek irabazpidezko sozietatearen pentzuan kontratatu badu eta onuraduna bizirik dirauen ezkontidea bada, jasotako kopuruaren erdia sartuko da zerga oinarrian.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikagarria izango da, halaber, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteen kasuan, baldin eta izatezko bikotea osatzen duten kideek ezarritako ondasunen inguruko araubide ekonomikoa aurreko idatz zatian azaldutako bada.

## 4. ATALA. BALIOEN EGIAZTAPENA

## 25. artikulua.- Arau orokorrak.

1. Subjektu pasiboek beren aitortenean nahitaez jaso beharko dute ondasunen eta eskubideen benetako balioa. Hori egiten ez badute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

2. Eskualdatutako ondasunen eta eskubideen benetako balioa egiaztatzeko eskubidea izango du Administrazioak; horretarako, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan eta Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluan ezarritako bideak baliatuko ditu.

## Artículo 21.- Deducción de cargas y gravámenes.

1. En las adquisiciones por causa de muerte, únicamente serán deducibles las cargas o gravámenes de naturaleza perpetua, temporal o redimible que aparezcan directamente establecidos sobre los mismos y disminuyan realmente su capital o valor, como los censos y las pensiones, sin que merezcan tal consideración las cargas que constituyan obligación personal del adquirente ni las que, como las hipotecas y las prendas, no suponen disminución del valor de lo transmitido, sin perjuicio, en su caso, de que las deudas que garanticen puedan ser deducidas si concurren los requisitos establecidos para ello.

2. Cuando en los documentos presentados no constase expresamente la duración de las pensiones, cargas o gravámenes deducibles, se considerará ilimitada.

3. Se entenderá como valor del censo, a efectos de su deducción, el del capital que deba entregarse para su redención según las normas de la legislación civil.

4. A dichos efectos, el valor de las pensiones se obtendrá capitalizándolas al interés legal del dinero, tomando del capital resultante aquella parte que, según las reglas establecidas para valorar los usufructos, corresponda a la edad del pensionista, si la pensión es vitalicia, o la duración de la pensión si es temporal. En la valoración de las pensiones temporales que no se extingan al fallecimiento del pensionista, no regirá el límite fijado en la de los usufructos. En corrección del valor así obtenido, el interesado podrá solicitar la práctica de la tasación pericial contradictoria.

Al extinguirse la pensión, el adquirente del bien vendrá obligado a satisfacer el Impuesto correspondiente al capital deducido según la tarifa vigente en el momento de la constitución de aquélla.

## SECCIÓN 2ª. NORMAS ESPECIALES PARA TRANSMISIONES LUCRATIVAS "INTER VIVOS"

## Artículo 22.- Deducción de cargas.

1. Para determinar el valor neto de los bienes o derechos adquiridos por donación o por cualquier otro negocio jurídico a título lucrativo e "inter vivos" equiparables, serán deducibles las cargas o gravámenes que reúnan los requisitos establecidos en el artículo 19 de la Norma Foral del Impuesto.

2. En la deducción de estas cargas serán aplicables las reglas contenidas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 21 de este Decreto Foral.

## Artículo 23.- Donación de bienes comunes de la sociedad conyugal o de la pareja de hecho.

1. En las donaciones de bienes gananciales realizadas conjuntamente por ambos cónyuges y en aquellos supuestos en que proceda aplicar una presunción de donación de bienes de tal naturaleza, se reputará, a efectos de liquidación del Impuesto, que existen dos transmisiones distintas, determinándose la base y el tipo de gravamen de cada una con arreglo a la mitad del valor total de los bienes donados.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será igualmente de aplicación a las parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo.

## SECCIÓN 3ª. NORMAS ESPECIALES EN MATERIA DE SEGUROS

Artículo 24.- Seguros contratados con cargo a los bienes comunes de la sociedad conyugal o pareja de hecho.

1. Cuando el seguro se hubiera contratado por cualquiera de los cónyuges, con cargo a la sociedad de gananciales y el beneficiario fuese el cónyuge sobreviviente, la base imponible estará constituida por la mitad de la cantidad percibida.

2. Lo dispuesto con anterioridad será igualmente de aplicación a las parejas de hecho, constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, cuando el régimen económico patrimonial establecido por los miembros de la citada pareja sea el señalado en el apartado anterior.

## SECCIÓN 4ª. COMPROBACIÓN DE VALORES

## Artículo 25.- Principio general.

1. Los sujetos pasivos están obligados a consignar en su declaración el valor real de los bienes y derechos. Si no lo hicieren serán sancionados conforme a lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria.

2. La Administración podrá comprobar, en todo caso, el valor real de los bienes y derechos transmitidos por los medios recogidos en el artículo 56 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria y en el artículo 21 de la Norma Foral del Impuesto.

3. Aitortutako balioa nagusituko zaio beti egiaztatutako balioari, baldin eta egiaztatutakoa handiago bada, ondorengo kasuetan izan ezik:

a) Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko c) letran aipatzen diren eskuraketetan.

b) Eskualdatze data 1992ko urtarrilaren 1a baino aurreragoa duten eskuraketetan.

26. artikulua.- Peritu tasazio kontrajarria: prozedura.

1. Bulego Likidatzaileak Arabako Foru Aldundiko dagokien zerbitzu teknikoek ondasun eta eskubideen zerrenda bidaliko die, ondasun eta eskubide horien izaerarako egokia den titulua duten langileek dagokien prezio orria egin dezaten, baldin eta Administrazioako peritu batek egindako arrazoitutako balorazioa espedientearen ageri ez bada jada. Izan ere, baliteke, balioa egiaztatzeko, Zergei buruzko Foru Arauan ezarrita dagoen eta Administrazioako perituen irizpenaren desberdina den bide bat erabili izana. Prezio orrian azaldu behar dituzte, egindako balorazioaren emaitza ezetik, balorazioa egiteko kontutan hartutako oinarriak ere.

2. Bulego Likidatzaileak Administrazioako perituaren balorazioa edo, Administrazioak balioak egiaztatzeko bide bezala Administrazioako perituen irizpenekoa erabili duelako, espedientearen ageri dena jasota, balorazioa interesdunei jakinaraziko zaie. Horiek, bat ez etorritz gero, peritu tasazio kontrajarria proposatzeko aukera izango dute soilik, eta hilabete bateko epea emango zaie beraiek izendatzen duten perituaren izena eta egoera azaltzeko.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean interesdunek periturik izendatzen ez badute, beren eskubideari uko egiten diotela eta Administrazioako perituak adierazitako balioa onartzen dutela ulertuko da, eta, hala, espedientea bukatutzat joko da.

